

# **GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA**

## **2022/23 IKASTURTE AKADEMIKOA**

### **CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA**

---

#### **Gradu Amaierako Lana / Master Amaierako Lana**

#### **Izenburua**

Kulturarteko hezkuntzaren erronkak ikastetxe publikoetan (2 GrAL)

#### **Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)**

Haur Hezkuntzako GrAL hauek "EHezi i3: GrALak euskal hezkuntza hobe baten alde" diziplinarteko proiektu kolektiboaren barnean txertatzen da. Egitasmo honen helburu nagusia guztiontzako kalitatezko hezkuntza ahalbidetzea da (4.GIH).

Hau lortzeko zenbait erronkari aurre egin beharra dago, besteak beste, aukera berdintasuna errealitate bat bilakatu behar da, hortaz, orain arte sortu izan diren egoera batzuk saihestu behar dira, kasu honetan segregazioa. Segregazioa sortzen da ikasleak modu ezberdinean banatuta daudenean eskola ezberdinetan zenbait aldagairen arabera: familien egoera sozioekonomikoa, ikaslearen edota honen familia kideen jaiotza-herrialdea edo talde etniko-kultural bateko kide izatea. Eskola segregazio dinamikek, beraz, bazterkeria eta aukera berdintasun eza sortarazten dituzte.

GrAL hauen bitartez ikastetxe publiko desberdinen errealitatea aztertuko da bertako komunitateak inklusioaren bidean proposatzen den kulturarteko hezkuntza nola ulertzen duen eta honen inguruan lanean ari diren aztertuz. Horretarako metodologia kualitatiboak erabiliko dira eta zentroaren hezkuntza proiektua aztertuko da besteak beste.

Proiektu honen bidez, EHezi i3 komunitateak dinamika sozialetan txertatu, EAEko hezkuntza lege berriarekin irekitako eztabaidan ebidentzietan oinarritutako ekarpenak egin, eta praktika guneetan berrikuntza pedagogikoa gauzatzeko aukera sustatu nahi du.

#### **Ikaslea aukeratzeko hautaketa-irizpideak**

Haur Hezkuntzako Gradu ikasleak. Etorkizun hurbilean irakasle izango den heinean gai hauen inguruko interesa daukaten pertsonak. GrAL hauek ikasle hautagaiek praktikak garatuko dituzten ikastetxeetan txertatuko dira.

## **Campus**

Bizkaia

## **Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)**

Bilboko Hezkuntza Fakultatea

## **Titulazioa**

Haur Hezkuntzako Gradua

## **Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza**

Euskara

## **Irakasle arduraduna**

Karmele Artetxe Sanchez

Miriam Ureta

## **Posta elektronikoa**

[karmele.artetxe@ehu.eus](mailto:karmele.artetxe@ehu.eus)

[miriam.ureta@ehu.eus](mailto:miriam.ureta@ehu.eus)

## **Campus Bizia Lab (CBL) proiektua**

EHezi i3: proiektua: GrALak euskal hezkuntza hobe baten alde

## **CBL proiektuaren webgunea**